



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko otsailaren 21a

20. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-25/MOC-00015. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Nafarroako gazteriarren kultur ekoizpena bultzatzearen, Arte Gaztea fabrikak abian jarrita. Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak aurkeztu du (3. or.).
- 11-25/MOC-00016. Mozioa, zeinaren bidez Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua premiatzen baita abian jar ditzan LGTBIfobiaren aurkako kanpainak, eta Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuak LGTBIfobiaren aurka egiten dituen kanpainak sar ditzan Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutua edo Nafarroako Gobernuak federazioekin edo klubekin lankidetzan aritzen den ikusgarritasun handiko kirol lehiaketetan eta ekitaldietan. Ibai Crespo Luna jaunak aurkeztu du (4. or.).
- 11-25/MOC-00017. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita sormen-askatasuna, adierazpen artistikoen aniztasuna eta kulturarako irispide unibertsala –oinarrizko eskubidea den aldetik– sustatzen duten kultur politika publikoekiko laguntza indartu dezan. Ibai Crespo Luna jaunak aurkeztu du (5. or.).
- 11-25/MOC-00021. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Espainiako Gobernuarekin batera lehenbailehen eman diezaion konponbidea CANASA sozietate publikoaren finantza-egoerari, udaberrian lizitzatzeko Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen obra. Nafarroako Alderdi Popularrak aurkeztu du (7. or.).
- 11-25/MOC-00022. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuak premiatzen baita zentral nuklearrak eta dauden erreaktoreak ixteko egutegiari euts diezaion, Energia eta Klimari buruzko Plan Nazionalen ezarritakoaren arabera. Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztu du (8. or.).
- 11-25/MOC-00024. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita deslokalizazioaren eta lehia desleialaren aurka eraginkortasunez borrokatzea ahalbidetuko duten tresna berariazkoak jasotzeko industriari buruzko foru-lege proiektuan. Miguel Garrido Sola jaunak aurkeztu du (9. or.).
- 11-25/DEC-00003. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Gaixotasun Arraroen Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsi du (11. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-25/POR-00069. Galdera, estatutupeko langileen eta funtzionarioen erretiro partzialerako eskubideari buruzkoa. María Inmaculada Jurío Macaya andreak egin du (12. or.).

- 11-25/POR-00076. Galdera, Gazteriaren Erakundearteko Kontseiluaren eskakizunei erantzuteari dagokionez Gazteriaren Alorrak dauzkan lehentasunei buruzkoa. Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egin du (13. or.).
- 11-25/POR-00077. Galdera, Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariaren otsailaren 29ko 22/2024 Foru Aginduari buruzkoa, zeinaren bidez arautzen baitira Nafarroako kirol federazioen hauteskunde-prozesuak. Ibai Crespo Luna jaunak egin du (14. or.).
- 11-25/PES-00060. Galdera, Nafarroako Ubidearen 1. fasean handitutako eremuko alderdi urreztagarriko eremu osagarriak urreztatze aurreikusen diren datei buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (15. or.).
- 11-25/PES-00061. Galdera, jakiteko ea zer enpresarekin kontratatzen dituen Lurralde Kohesiorako Departamentuak, espeleologiari dagokionez, hidrologia- eta meatze-intereseko obrak. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (15. or.).
- 11-25/PES-00062. Galdera, jakiteko ea zer enpresarekin kontratatzen dituen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak, espeleologiari dagokionez, hidrologia-intereseko, faunaren eta biologiaren arloko obrak. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (16. or.).
- 11-25/PES-00063. Galdera, jakiteko ea zer enpresarekin kontratatzen dituen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak, espeleologiari dagokionez, arkeologia- nahiz paleontologia-intereseko obrak. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (16. or.).
- 11-25/PES-00064. Galdera, JPI Consultores enpresak uko egiteko arrazoiei buruzkoa. Félix Zapatero Soria jaunak egin du (17. or.).
- 11-25/PES-00065. Galdera, Europako Next Generation SEM funtsei buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (17. or.).
- 11-25/PES-00066. Galdera, jakiteko ea selektibitatean ETA banda terroristaren eta/edo GALen jarduerari buruzko galderarik egin ote den. Cristina López Mañero andreak egin du (18. or.).
- 11-25/PES-00067. Galdera, terrorismoa dela-eta kondenatutako irakasleei buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (18. or.).
- 11-25/PES-00068. Galdera, oinarritzko osasun-laguntzako mediku-absentziak produktibitatearen bidez betetzeari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (19. or.).
- 11-25/PES-00069. Galdera, Entertainment Circus Troup SLri 2024an emandako babesletzari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (20. or.).
- 11-25/PES-00070. Galdera, Frankismoaren Anatomia kongresuari 2024an emandako babesletzari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (20. or.).
- 11-25/PES-00071. Galdera, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak 2025eko urtarrilaren 15ean emandako epaiaren ondorioei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (21. or.).
- 11-25/PES-00072. Galdera, Kasedako Udalari legezketasuna berrezartzeko ireki zitzaion espedienteari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (22. or.).
- 11-25/PES-00073. Galdera, Ricardo García Pellejero eta Aniano Jiménez Santosen omenezko monolitoari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (23. or.).
- 11-25/PES-00074. Galdera, Europako NG funtsekin finantzatutako ID005 jarduketa 2024ko azaroan eta abenduan murriztu izanari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (24. or.).
- 11-25/PES-00075. Galdera, Karlismoaren Museoan Jurrmendiko 1976ko gertaerei emandako tratamenduari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (25. or.).
- 11-25/PES-00076. Galdera, Ostalaritza eta Turismoa Elkarteari turismoa susta dezan 2020tik aitzina emandako laguntza ekonomikoari buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (26. or.).
- 11-25/PES-00077. Galdera, larritasuneko diagnostiko klinikoak ez berandutzeko mekanismoei buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (27. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- 11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (28. or.).
- 11-24/ELC-00002. Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronaturako kide bat hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (28. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-25/MOC-00015. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita Nafarroako gazteriaren kultur ekoizpena bultzatzen, Arte Gaztea fabrikak abian jarrita

MIREN ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako gazteriaren kultur ekoizpena bultzatzen, Arte Gaztea fabrikak abian jarrita.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Mozio honen jarraipena Kultura, Kirol eta Turismo moko Batzordeak egingen du.

Zioen azalpena

Gazteen beharrezko konponbide bat emateko politikak aktibatu ahal izateko, ezinbestez jakin behar da zeintzuk diren benetan dituzten beharrezkoak eta eskariak, hartara tresna egokiak eman ahalgo baitzaizkie beharrezko horiei aurre egin diezaieten. Erakundeek gazteen aldeko apustua

egin behar dute, bidea egin ahal izateko aukerarik onenak emanaz.

Baita kulturaren arloan ere, artista gazteek zailtasunak dauzkatelako ibilbide artistikoari ekiteko. Eskultore, margolari, diseinatzaile, koreografo, antzerkigile gazte eta abarrek ez dute aurkitzen non landu beren obrak, salbu eta zentro pribatuen batean toki bat aurkitzen dutenean.

Hortaz, euren diziplina artistikoa garatzeko espazio bat lortzeko abagune gutxien dauzkatenez, uste dugu beharrezkoa dela Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuak ahalegin bat egitea kultur sortzaile gazteen esku egonlekuak jartzeko, bertan egonaldi artistikoak egin ahal izan ditzaten euren lanbide-karrera abiarazteko.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki-proposamen hau aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du nafar gazteen kultur ekoizpena bultzatzen, Arte Gaztea fabrikak abian jarrita.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egonaldi artistikoak egite aldera gazteen eskura jar daitezkeen instalazio publikoen mapa egin dezan.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du udal-sare batean sartuta dauden espazio publikoak – gazteen sormen artistikora eta lanen sustapenera eta erakusketara bideratuak – lagatzeko plan bat egin dezan toki-entitateekin lankidetzan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 7an

Foru parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

11-25/MOC-00016. Mozioa, zeinaren bidez Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua premiatzen baita abian jar ditzan LGTBIfobiaren aurkako kanpainak, eta Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuak LGTBIfobiaren aurka egiten dituen kanpainak sar ditzan Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutua edo Nafarroako Gobernu federazioekin edo klubekin lankidetzan aritzen den ikusgarritasun handiko kirol lehiaketetan eta ekitaldietan

IBAI CRESPO LUNA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ibai Crespo Luna jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua premiatzen baita abian jar ditzan LGTBIfobiaren aurkako kanpainak, eta Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuak LGTBIfobiaren aurka egiten dituen kanpainak sar ditzan Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutua edo Nafarroako Gobernu federazioekin edo klubekin lankidetzan aritzen den ikusgarritasun handiko kirol lehiaketetan eta ekitaldietan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ibai Crespo Luna jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Mozio honen jarraipena Kultura, Kirol eta Turismoko Batzordeak eginen du.

Zioen azalpena

LGTBI pertsonen berdintasuna eta sexu-askatasuna eskubideak dira, Espainiako nahiz Nafarroako legedian aitortuak eta jasoak. Eskubideaitorpen hori LGTBI pertsonen gure herriaren historian zehar egindako erreibindikazio sozialaren fruitu da.

Legezko aitortza hori gorabehera –bai eta Espainiako nahiz Nafarroako gehiengo sozialarena ere–, LGTBI pertsonen eskubideak arriskuan daude, sektore politiko eta sozial erreazionario eta kontserbadoreen diskurtso gorrotzko, negazionista eta homofoboaren erruz. Hori dela-eta, oso garrantzitsua da kolektibo horrek ikusgarritasuna izatea, bereziki beharrezkoa dena kirol-esparruan, non oztopoak ugariak baitira. XXI. mende bete-betean, sexu-joera ez-heterosexuala tabua da oraindik ere kirolean oro har, non ikusezintasuna nahitaezkoa baita intolerantziaren eta presio sozialaren ondorioz.

Hedabideen eta sare sozialen bidez ikusten dugu areagotuz doazela iruzkin homofoboak kirol-lehiaketetan. Jakina da, orobat, oraindik ere badirela kirol diziplina eta ekipoak –oihartzun mediatikorik handiena dutenak bereziki– kirolariei eragozten dietenak euren homosexualitatea jendaurrean agertzea –gailentasun publiko handikoei bereziki–.

Kirola espazio zaila da oraindik ere gure gizarteko LGTBI pertsonentzat, eta horrek ezbaian jartzen du gizartea egiazki demokratikoa ote den. Diskurtso eta irain homofoboaren areagotzeak gaur arte lortutako eskubide eta aurrerabideetan atzera egitea ekar dezake.

Kirola, tradizionalki, zenbait diziplinatan maskulinizazio- eta feminizazio-estereotipoen betetako esparru bat izan da, eta horrek LGTBI pertsonen aurkako jarrerak eragin ditu sarri, horien parte-hartzea maskulinitatearen edo feminitatearen gaineko aurreiritziekin lotu izan baita.

Kirolaren historian zehar benetako dramak gertatu dira, zenbait kirolarik bere homosexualitatea jendaurrean azaldu ostean. Oso ezaguna da Justin Fashanu futbolari ingelesaren kasua, bere sexu-joera ezagutarazi eta gero azkenean bere buruaz beste egin zuena. Beste adibide bat da, oraintsuagokoa, igeriketa artistikoko solo tekniko proban Europako txapeldun izan zen Dennis Gonzálezena, zeinak etengabeko irainak jaso bai-

tzituen txapeldun bihurtu zuen ariketa sare sozialetan partekatzeagatik.

Zenbait kirol-lehiaketatan, kirolariek, epaileek eta talde teknikoek egunero-egunero entzun behar izaten dituzte "maritxu", "mari-mutil", "bollera" edo "atzelari zikin hori" gisako irainak, eta horrek oso mezu arriskutsua helarazten du, baldin eta ez bada ezer egiten halako jokabideak normaliza ez daitezen.

Azaldutako guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak honako erabaki-proposamen hau aurkezten du:

1. Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua premiatzen da abian jar ditzan LGTBIfobiaren aurkako kanpainak, eta Nafarroako Kirolaren eta Jar-

duera Fisikoaren Institutuak LGTBIfobiaren aurka egiten dituen kanpainak sar ditzan Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutua edo Nafarroako Gobernua federazioekin edo klubekin lankidetzan aritzen den ikusgarritasun handiko kirol lehiaketetan eta ekitaldietan.

2. Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua premiatzen da LGTBIfobia kirol-esparrutik errotik desagerrarazteko estrategiak eta LGBTBI+ Inklusio-programak taxutu ditzan eta jokabide intoleranteen aitzinean jarduteko protokoloak eguneratu ditzan egiten diren lege-, arau- edo plan-aldaketetan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 12an

Foru parlamentaria: Ibai Crespo Luna

11-25/MOC-00017. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita sormen-askatasuna, adierazpen artistikoen aniztasuna eta kulturarako irispide unibertsala –oinarrizko eskubidea den aldetik– sustatzen duten kultur politika publikoekiko laguntza indartu dezan

IBAI CRESPO LUNA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ibai Crespo Luna jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita sormen-askatasuna, adierazpen artistikoen aniztasuna eta kulturarako irispide unibertsala –oinarrizko eskubidea den aldetik– sustatzen duten kultur politika publikoekiko laguntza indartu dezan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ibai Crespo Luna jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babe-

sean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Mozio honen jarraipena Kultura, Kirol eta Turismo moko Batzordeak egingen du.

Zioen azalpena

Kultura eta giza zientziak funtsezko oinarriak dira gizarte libreak, kritikoa eta demokratikoa eraikitzeko. Ereku plurala dira, non topatzen diren pentsamendu kritikoa, gogoeta eta elkarrizketa, eta horrela, posible da herritarrak informatuta egotea, garapen pertsonala lantzea, eta horiek kontziente izatea, eta gai izatea desinformazioari, informazio faltsuei eta bizikidetzaren demokratikoa hondatzen duten narrazio manipulatu eta muturrekoen aurre egiteko.

Alabaina, azkenaldian, "ezeztapenaren kultura" delakoa aitzakia gisa erabili dute sektore kontserbadoreek beren ikuspegi moralak ezartzeko eta beren ikuspuntuekin bat ez datozen adierazpen kulturei eta humanistikoari zilegitasuna kentzeko. Jarrera horietatik, kultura mespretxatu nahi dute, askatasunerako eta pentsamolde kritikorako trina den heinean, hura mugatuz eta ez-beharrezko-tzat edo marjinalizatuz joz.

Fenomeno horrek prozesu arriskutsu bat dakar: apaldu egiten da kulturak errealtatea zalantzan jartzeko, manipulazioari aurre egiteko eta gizarte bidezkoago eta inklusiboago bat eraikitzeke gai diren norbanakoak hezteko duen balioa. Era berean, desberdinak diren ahotsak isilarazi egiten dira, eta adierazpen artistikorako, sozialerako eta intelektualerako oldarkorra den giro bat sortzen da.

Ideologia mugatzeko eta kultura, artea eta ikonografia hutsaltzeko ahalegin horien aurrean, politika kulturalak sendotzearekin eta giza zientziak sustatzearekin dugun konpromisoa berretsi behar dugu, obskurantismoaren, muturreko polarizazioaren eta desinformazioaren aurkako antidoto baitira. Kultura, bere adierazpen askotarikoetan, funtsezko tresna da estremismo kontserbadorearen eta informazio faltsuen aurka borrokatzeke eta gizartearen sena kritikoa sendotzeko.

Azaldutako guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak honako erabaki-proposamen hau aurkezten du:

1. Nafarroako Gobernuak premiatzen da sormen-askatasuna, adierazpen artistikoen aniztasuna eta kulturarako irispide unibertsala –oinarrizko eskubidea den aldetik– sustatzen duten kultur politika publikoekiko laguntza indartu dezan.

2. Nafarroako Gobernuak premiatzen da kanpainak eta heziketa-programak sustatu ditzen, kulturak desinformazioaren, muturreko polarizazioaren eta aurreiritzi ideologikoen aurka borrokatzeke balio duen tresna gisa duen garrantziari buruz sensibilizatzeko.

3. Nafarroako Gobernuak premiatzen da arbuia-tu ditzen jarrera kontserbadoreetatik datozen zentsuratzeko eta muga moralak ezartzeko ahaleginak, aniztasun kulturala mugatzea eta artearen eta giza zientzien ikuspegi murriztaile bat ezartzea xede dutenak.

4. Nafarroako Gobernuak premiatzen da gaitzetsi dezan “ezeztapenaren kultura” kontzeptua erabiltzea adierazpen-askatasunari eta desberdinkeria sozialekiko, politikoekeko eta ekonomioekiko kritikoeke diren adierazpen kulturaleri zilegitasuna kentzeko tresna gisa.

5. Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua premiatzen da jarrai dezan pertsoneri zuzendutako politika kulturalak lehenesten eta herritarrei zuzendutako zerbitzu kulturalak ezartzen, hala nola liburutegiak, museoak edo artxiboak, horietarako sarbide-modu askotarikoak eskainiz.

Iruñean, 2025eko otsailaren 12an

Foru parlamentaria: Ibai Crespo Luna

11-25/MOC-00021. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia- tzen baita Espainiako Gobernuarekin batera lehenbailehen eman die- zaion konponbidea CANASA sozietate publikoaren finantza-egoerari, udaberrian lizitzatzeko Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen obra

NAFARROAKO ALDERDI POPULARRAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Popularrak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiaitzen baita Espainiako Gobernuarekin batera lehenbailehen eman diezaion konponbidea CANASA sozietate publikoaren finantza-egoerari, udaberrian lizitzatzeko Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen obra.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra (PPN) talde parlamentarioaren eledun den Javier García Jiménez jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu dadin eta Lurralde Kohesiorako Batzordean egin dakion jarraipena:

Zioen azalpena

2024ko urrian, Nafarroako Gobernuak lehendakariak iragarri zuen Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen balizko lizitazioa egingen zela 2025eko udaberrian. Behin proiektu hori lizitatutakoan, Nafarroako Ubidearen obra berrabiaraziko zen, bigarren fase horretan, gelditua izan baitzen eta ez baitu jarraipenik izan 2011az geroztik.

Obra hori lizitzatzeko, izapide administratibo, ekonomiko eta finantzario garrantzitsuak ebatzi behar dira, duela zenbait urtetik ebatzi gabe daudenak; ez dugu horien gaur egungo egoeraren berri, eta beraz, ezta horien amaieraren berri ere.

Canasa sozietate publikoak (% 60 Gobernu zentrala, % 40 Nafarroako Gobernuak), obra lizitzatzeko arduradun denak, zor-bolumen izugarri handia du gaur egun, eta horren ondorioz, ezin du lizitaziorik egin. Gainera, merkatuan kredituak eskuratzeko ziurgabetasun eta arrisku handia du, non eta ez duten Nafarroako Gobernuak eta Gobernu zentralak bitartekari gisa jarduten eta babesia adierazten.

Ebazteke dagoen beste egoera bat da izapide administratibo osagarriaren ebazpenarena, eta ez dugu horren amaiera-data posiblearen berri.

Nafarroako Ubidearen bigarren fasea izan zen litoizko urtegia eraikitzeke justifikazio nagusia, eta gaur egun ez da probetxurik ateratzen hortik.

Proiektu hau estrategikoa eta biziki garrantzitsua da Nafarroako Erdialdeko zati bateko eta Erribera osoko hiri-, industria- eta nekazaritza-hornidurarako.

Bigarren fasearen egungo proiektuak kanpo uzten zituen Erriberako eta Nafarroako Erdialdeko hamabost udalerritik gora, eta beraz, horiek ezin izanen lukete litoizko ura probestu.

Kontuan hartuta eremu horietan kalitatezko uraren erabilgarritasunaren eskasia dagoela gaur egun eta egonen dela datozen hamarkadetan, proiektu hau funtsezkoa da Nafarroa erdiaren etorkizuneko garapenerako.

Horregatik guztiatik, Nafarroako Parlamentuak honako erabaki-proposamen hau onesten du:

1. Nafarroako Gobernuak premiaitzen da Espainiako Gobernuarekin batera lehenbailehen eman diezaion konponbidea Canasa sozietate publikoaren finantza-egoerari, udaberrian lizitzatzeko Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen obra, Chivite lehendakariak iragarri zuen eran.

2. Bi gobernuak sina dezaten "Lankidetzaren eguneratzea", non jasoko baitira obra honekiko konpromiso ekonomikoak eta finantzarioak, bai eta ekarpen ekonomikoen handitzea ere, lehenengo fasean eta haren hedapenean egin zen eran.

3. Nafarroako Gobernuak premiaitzen da Gobernu zentralari eta haren erakunde publikoei exijitu

diezaien ebatz ditzatela egiteke dauden izapide guztiak, balizko lizitazioa ez dadin geldiarazi.

4. Nafarroako Gobernua premiatzen da azter dezan bigarren faseko proiektuan sartutako udalerrri eta eremu ureztagarriak zabaltzeko aukera, onurak

Nafarroako zati handi batera hedatu ahal izateko horrela.

Iruñean, 2025eko otsailaren 11n

Eleduna: Javier García Jiménez

11-25/MOC-00022. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita dauden zentral nuklearrak eta erreaktoreak ixteko egutegiari euts diezaion, Energia eta Klimari buruzko Plan Nazionalan ezarritakoaren arabera

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita dauden zentral nuklearrak eta erreaktoreak ixteko egutegiari euts diezaion, Energia eta Klimari buruzko Plan Nazionalan ezarritakoaren arabera.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Legebiltzarraren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Mozioaren jarraipena Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Batzordeak egingen du.

Zioen azalpena

Energia eta Klimari buruzko Plan Nazionalan dago zehaztuta gaur egun espainiar estatuan lanean dauden bost zentral nuklearrak eta zazpi erreaktoreak pixkanaka ixteko egutegia. 2025.

urterako, ez litzateke inolako instalazio nuklearrik egon behar estatuko “mix” energetikoa hornitzen.

Baina alderdi politiko batzuk plana zalantzan jartzen ari dira, gaur egun dauden zentral nuklearraren bizitza luzatzeko asmoz, eta horren froga argiena da Diputatuen Kongresuan berriki eginiko bozketa.

Bestalde, Europako Batzordeak, duela denbora bat, taxonomiaren barruan sartu zituen, hau da, ingurumenaren ikuspegitik jasangarriak diren jardueren artean, bai energia nuklearra, bai gasetik datorrena, “berde” gisa katalogatuta. Hori, ezbairik gabe, Europako Itun Berdean ezarritakoarekin eta kontinentearen deskarbonizaziorantzko ibilbidearen erabat aurka doa —aurrez finkatutako eta onetsitako egutegi baten arabera helburu garbiak betez egin nahi dena—.

Europako taxonomia dugu ingurumenaren aldetik jasangarriak diren jarduera ekonomikoak sailkatzeko sistema bat, halakotzat jotzen ahal diren guztiak identifikatzen dituena, bai eta jo ezin direnak ere. Era horretan bilatzen da inbertitzaileek definizio baliagarri bat izan dezaten, jarduera jasangarrietan inbertitzailekoan segurtasun handiagoa bermatuko diena.

Geroa Baik, bestalde, beti azpimarratu du Europa eraikitzekeko prozesuan erregioek burutu behar duten papera —paper aktiboa, garrantzitsua—. Ibilbide horretan Nafarroak eragile nagusia izan behar du, eta bere papera jokatu. Bere gidoirik ez duen ikusle hutsa izan gabe.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du dauden zentral nuklearrak eta erreaktoreak ixteko egutegiari euts die-

zaion, Energia eta Klimari buruzko Plan Nazionalen ezarritakoaren arabera.

2. Nafarroako Parlamentuak Europako Erakundeak premiatzen ditu dagokion araudia alda dezaten, ez energia nuklearra ez gasa ez daitezen har energia berde bezala eta, ondorioz, ez daitezen jo Europako taxonomia delakoan sartzeko modukotzat.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lanean jarrai dezan energia-mix bat ezartzeko, Nafarroan ekoiztutako energia berriztagarrietan oinarritua, zeinek energia-jasagan

garritasuna eta prezioen egonkortasuna bermatuko duten.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako eta Espainiako gobernuak premiatzen ditu behar diren plan eta estrategiak ezar ditzaten, berriztatze aldeko ekonomiaren deskarbonizazioa eramanen gaituen energia trantsizioa alderdi sozialetan justua izanen dela eta etorkizuneko belaunaldiari begira ez duela ezbaian jarriko ongizate-estatu oso bat.

Iruñean, 2025eko otsailaren 13an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

11-25/MOC-00024. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita deslokalizazioaren eta lehia desleialaren aurka eraginkortasunez borrokatzea ahalbidetuko duten tresna berariazkoak jaso ditzan industriari buruzko foru-lege proiektuan

MIGUEL GARRIDO SOLA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Garrido Sola jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita deslokalizazioaren eta lehia desleialaren aurka eraginkortasunez borrokatzea ahalbidetuko duten tresna berariazkoak jaso ditzan industriari buruzko foru-lege proiektuan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Miguel Garrido Solak, Parlamentuko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Eskatzen dugu Nafarroako Parlamentuaren Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Batzordean egin dadila mozio honen betetze-egoeraren jarraipena.

Zioen azalpena

Kapitalen askatasun delakoan, inolako erregulaziorik eta elkarrekikotasunik gabekoan, kapitalaren merkatuko eragile lehiakor huts bihurtzen dira lurraldeak. Hau da, elkarrekin lehiatzera bultzatzen ditu lurraldeak, batzuetatik besteetara kapitala erakartzeko borrokan, eta, beren burua liberalizatzen dutenek gogorarazten duten eran, merkatu bateko lehia askeak prezioak jaitea eragin ohi du; bada, kasu honetan, prezioak dira soldadak eta langileen baldintzak, ingurumen- eta lege-bermeak eta justizia fiskala.

Alabaina, eta dogmatismo neoliberaletik aterata, badago industria-politika lantzeko beste modu bat, oinarritzko hiru printzipio hauen arabera: lidergo publikoa, ekosistema sendoa eta lehia desleialaren eta deslokalizazioaren aurkako borroka.

Lidergo publikoaren printzipioa behar-beharrezkoa da politika industrial jakin bat sustatu nahi bada; zehazki, balio-kate integralak lurraldean ainguratuko dituen espezializazio adimenduna gauzatzeko gai dena, jakintza-transferentzia lortzeko lankidetzak bultzatzen duena eta garapen ekonomiko, zientifiko, teknologiko eta sozialeko merkatu-

hobi berrietan ekintzailtza sustatzen duena. Horiek guztiak balio erantsi handia duen eta lurraldean benetan errotuta dagoen ehundura bat lortzeko, herritarren benetako interesei erantzunen diena, eta ez kapitalaren jabeen interesei soilik.

Bigarrenik, giltzarria da, orobat, produktibitate handiko industria-ekosistema bat sortzea, jakintza, energia berdea eta merkea, berrikuntza, giza kapitala, azpiegiturak, digitalizazioa eta administrazio publikoekiko harremanen bizkortasuna eta erraztasuna sustatuz, horiek baitira XXI. mendeko produktibitate-faktore nagusiak.

Baina, benetako lidergo publikoa eta ekosistema sendoa izanik ere, ezinbestekoa da hirugarren ardatz bat sustatzea, lehia desleialaren eta deslokalizazioaren aurka borrokatzeko bidea emanen duena. Joko-arau komunak bermatu behar ditugu, ez dadin posible izan lan-eskubideak, ingurumenaren babesa eta justizia fiskala salerostea; azken finean, ekonomia interes orokorraren zerbitzura egon dadin, eta ez alderantziz.

Hain zuzen ere, Nafarroan enpresa-deslokaziotako prozesuak pairatzen ari gara azken aldian, oso mingarriak denak ere, hala nola BSHrena eta Nano Automotiverena, zeinak hirugarren herrialde-

en lehia desleialaren ondorio diren hein batean. Prozesu horiek agerian utzi dute administrazio publikoek ez dutela tresnarik, ez horiek geldiarazteko, baina ezta horietan esku hartzeko eta eragindako langileei bermeak emateko ere.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du deslokalizazioaren eta lehia desleialaren aurka eraginkortasunez borrokatzea ahalbidetuko duten tresna berariazkoak jasotzen dituzan industriari buruzko foru-lege proiektuan.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du Sozietateen gaineko Zergaren kenkariak lurralde-errotzearen eta enpleguari eustearen arabera baldintzatzeko.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du Europako Batzordeari helaraz diezaion erkidegoaren antolamendu juridikoan eta haren merkataritza-politikan elkarrekiko bermerako eta lehia desleialaren aurkako borrokarako mekanismoak sartzeko beharra.

Iruñean, 2025eko otsailaren 13an

Foru parlamentaria: Miguel Garrido Sola

11-25/DEC-00003. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Gaixotasun Arraroen Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2025eko otsailaren 17an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Gaixotasun Arraroen Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin.

2. Nafarroako Parlamentuak uste du funtsezkoa dela ikerketaren aldeko apustua egitea eta jada abian diren programa espezifikoei jarraipena ematea.

3. Nafarroako Parlamentuak arreta integralarekin duen konpromisoa adierazten du, osasunlaguntza humanizatuta eta zerbitzuetarako eta zainketa aringarrietarako sarbide ekitatiboa bermatuta.

4. Nafarroako Parlamentuak premiatzen du gizarte-zerbitzuetarako sarbidea berma dadin eta ezgaitasunaren balorazioa hobetu dadin”.

Iruñean, 2025eko otsailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

11-25/POR-00069. Galdera, estatutupeko langileen eta funtzionarioen erretiro partzialerako eskubideari buruzkoa

MARÍA INMACULADA JURÍO MACAYA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Inmaculada Jurío Macaya andreak egindako galdera, estatutupeko langileen eta funtzionarioen erretiro partzialerako eskubideari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Inmaculada Jurío Macaya andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2024ko abenduaren 18an, estatutupeko langileen eta funtzionarioen erretiro partzialerako eskubideari buruzko akordio bat sinatu zuten CCOO eta UGT sindikatuek Espainiako Gobernuarekin.

Nafarroako Gobernuak aurreikusita al dauka horri buruzko ezer egitea Nafarroako Funtzio Publikoari dagokionez?

Iruñean, 2025eko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: Inmaculada Jurío Macaya

11-25/POR-00076. Galdera, Gazteriaren Erakundearteko Kontseiluaren eskakizunei erantzuteari dagokionez Gazteriaren Alorrak dauzkan lehentasunei buruzkoa

MIREN ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako galdera, Gazteriaren Erakundearteko Kontseiluaren eskakizunei erantzuteari dagokionez Gazteriaren Alorrak dauzkan lehentasunei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan eza-

rritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilari Begoña Alfaro García andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Oraintsu eratu da Gazteriaren Erakunde arteko Kontseilua, zeinaren helburu nagusia baita kontsultarako, aholkularitzarako eta parte-hartzerako organoa izatea, bereziki Gazteriari buruzko Foru Legearekin zerikusia daukan orotan. Duela aste gutxi batzuk egin zen kontseilu horren lehenbiziko bilera, eta hori dela-eta, jakin nahiko genuke departamentuak zer balorazio egiten duen horri buruz.

Hortaz, honako hau galdetzen diogu Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariari: Gazteriaren alorrak zer lehentasun dauka erakundearteko kontseiluaren lehenbiziko bilera hartan azaldutako eskariei erantzuteari begira?

Iruñean, 2025eko otsailaren 11n

Foru parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

11-25/POR-00077. Galdera, Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariaren otsailaren 29ko 22/2024 Foru Aginduari buruzkoa, zeinaren bidez arautzen baitira Nafarroako kirol federazioen hauteskunde-prozesuak

IBAI CRESPO LUNA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ibai Crespo Luna jaunak egindako galdera, Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariaren otsailaren 29ko 22/2024 Foru Aginduari buruzkoa, zeinaren bidez arautzen baitira Nafarroako kirol federazioen hauteskunde-prozesuak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ibai Crespo Luna jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren

babesean, honako galdera hau egiten du, Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2024ko martxoan, Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuak foru agindu bat onetsi zuen, Nafarroako kirol federazioetako lehendakariak eta biltzar nagusiak hautatzeko hauteskunde-prozesuak arautzen dituen, zeinak lau urtean behin egin behar baitira, ziklo olinpikoekin batera. Foru aginduaren berritasun nagusia zen apustu egiten zela federazioetako erabakimen-organoetan emakumeen presentzia areagotzearen alde, emakumeen ordezkaritza proportzio orekatuan sustatzeko eta indartzeko portzentajeen bidez.

Zer eragin izan du Nafarroako kirol-federazioetako lehendakariak eta biltzar nagusiak hautatzeko hauteskunde-prozesuak arautzen dituen foru aginduaren aplikazioak?

Iruñean, 2025eko otsailaren 12an

Foru parlamentaria: Ibai Crespo Luna

11-25/PES-00060. Galdera, Nafarroako Ubidearen 1. fasean handitutako eremuko alderdi ureztagarriko eremu osagarriak ureztatzeko aurreikusten diren datei buruzkoa

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Nafarroako Ubidearen 1. fasean handitutako eremuko alderdi ureztagarriko eremu osagarriak ureztatzeko aurreikusten diren datei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Gobernuak noiz aurreikusten du hasiko direla ureztatzen Nafarroako Ubidearen 1. fasearen zabalpenaren eremu ureztagarriko eremu osagarriak, Nafarroako Foru Komunitateko Ureztatze Planeko jarduketan zerrendan sartu zirenak?

Iruñean, 2025eko otsailaren 7an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

11-25/PES-00061. Galdera, jakiteko ea zer enpresarekin kontratatzen dituen Lurralde Kohesiorako Departamentuak, espeleologiari dagokionez, hidrologia- eta meatze-intereseko obrak

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, jakiteko ea zer enpresarekin kontratatzen dituen Lurralde Kohesiorako Departamentuak, espeleologiari dagokionez, hidrologia- eta meatze-intereseko obrak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Lurralde Kohesiorako Departamentuak zer enpresarekin kontratatzen ditu, espeleologiari dagokionez, hidrologia- eta meatze-intereseko obrak?

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

11-25/PES-00062. Galdera, jakiteko ea zer enpresarekin kontratatzen dituen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak, espeleologiari dagokionez, hidrologia-intereseko, faunaren eta biologiaren arloko obrak

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, jakiteko ea zer enpresarekin kontratatzen dituen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak, espeleologiari dagokionez, hidrologia-intereseko, faunaren eta biologiaren arloko obrak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak zer enpresarekin kontratatzen ditu, espeleologiari dagokionez, hidrologia-intereseko, faunaren eta biologiaren arloko obrak?

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

11-25/PES-00063. Galdera, jakiteko ea zer enpresarekin kontratatzen dituen Landa Garapena eta Ingurumena Departamentuak, espeleologiari dagokionez, arkeologia- nahiz paleontologia-intereseko obrak

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, jakiteko ea zer enpresarekin kontratatzen dituen Landa Garapena eta Ingurumena Departamentuak, espeleologiari dagokionez, arkeologia- nahiz paleontologia-intereseko obrak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuaren Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak zer enpresarekin kontratatzen ditu, espeleologiari dagokionez, arkeologia- nahiz paleontologia-intereseko obrak?

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

11-25/PES-00064. Galdera, JPI Consultores enpresak uko egiteko arrazoiei buruzkoa

FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak egindako galdera, JPI Consultores enpresak uko egiteko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Félix Zapatero Soria jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

JPI Consultores enpresak zergatik egin dio uko Klima-aldaketaren Nafarroako Herritar-batzarraren talde bideratzaile izaten jarraitzeari?

Iruñean, 2025eko otsailaren 11n

Foru parlamentaria: Félix Zapatero Soria

11-25/PES-00065. Galdera, Europako Next Generation SEM funtsei buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Europako Next Generation SEM funtsei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, Europako NG SEM funtsei buruzko honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

1. Nafarroako Gobernuaren 2024rako aurrekontu-gastuetan Europako Next Generation SEM funtsetan aurreikusitako zenbatekoaren zer zati geratu da bete gabe eta gehitzen zaie 2025eko aurrekontu-gastuei, zeinen balioespina 114.099.174 €-koa baita?

2. Zein da, hortaz, Nafarroari esleitu zaizkion Europako Next Generation SEM funtsetatik betetzeko gelditzen den zenbatekoa, gutzira?

3. Zer departamentutan daude fisikoki kokaturik Europako Next Generation SEM funtsak koordinatzeko lana egiteko sartu ziren 6 pertsonak?

4. Zer prozeduraren bidez kontratatu dira pertsona horiek eta zenbat denborarako kontratua egin zaie?

5. Zenbat pertsonak lan egiten dute, gutzira, Ekonomia eta Ogasun Departamentuari atxikitako Europako Next Generation SEM funtsak koordinatzeko eta betetzeko?

Iruñean, 2025eko otsailaren 11n

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

11-25/PES-00066. Galdera, jakiteko ea selektibitatean ETA banda terroristaren eta/edo GALen jarduerari buruzko galderarik egin ote den

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, jakiteko ea selektibitatean ETA banda terroristaren eta/edo GALen jarduerari buruzko galderarik egin ote den.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroan selektibitateko azterketaren batean galdetu al da ETA banda terroristaren eta/edo GALen jarduerari buruz?

Iruñean, 2025eko otsailaren 12an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-25/PES-00067. Galdera, terrorismoa dela-eta kondenatutako irakasleei buruzkoa

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak egindako galdera, terrorismoa dela-eta kondenatutako irakasleei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babe-

sean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Urtarrilaren 29an, Hezkuntzako kontseilari Gimeno jaunak adierazi zuen "terrorismoagatiko kondenak izan dituzten ezin konta ahala irakasle lan egin dutela UPNrekin". Adierazpen horiek ikusita, honako hau jakin nahi dut:

1. Kontseilariak ezagutzen al du Nafarroako hezkuntza-sisteman irakasle modura lan egin duen inor Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoaren II. liburuaren XXII. tituluaren VII. kapituluko delituren bat dela-eta kondenaturik eta desgaitu gabe zegoena?

Erreparatu galderan espresuki itauntzen dela 251/1993 Legegintzako Foru-dekretuak jasotzen duen kasuan egon ez diren edo ez dauden pertsonak; hau da, funtzio publikoak betetzeko desgaiturik edo suspenditurik ez zeuden eta zerbitzutik bereizirik ez zeuden pertsonak, kontseilariak 11-25/PEI-00124 informazio-eskariari emandako erantzuna ikusita.

2. Hala baldin bada, kontseilariari eskatzen diot zehaztu dezan zer pertsonari buruz ari zen: pertsona horien izen-abizenak, zer egunetatik zer egunetara egin zuten lan eta zer ikastetxetan egin zuten lan.

3. Hala ez baldin bada, zer iturri erabili zuen kontseilariak baieztapen horiek egiteko? Erabilitako iturrien kopia eskatzen dut.

Iruñean, 2025eko otsailaren 12an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

11-25/PES-00068. Galdera, oinarrizko osasun-laguntzako mediku-absentziak produktibitatearen bidez betetzeari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, oinarrizko osasun-laguntzako mediku-absentziak produktibitatearen bidez betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Osasun Departamentuak ba al du Oinarrizko Osasun-laguntzako mediku-absentziak produktibitatearen bidez betetzean irregularitasunak egin izanaren frogarik? Zer egin da horri dagokionez?

Iruñean, 2025eko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-25/PES-00069. Galdera, Entertainment Circus Troup SLri 2024an emandako babesletzari buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Entertainment Circus Troup SLri 2024an emandako babesletzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuak Entertainment Circus Troup SL babestu zuen 2024an, 18.150 euroekin. Zertan zeutzan babesletza hori?

Zein izan zen babestutako ekintzaren kostu osoa?

Iruñean, 2025eko otsailaren 13an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-25/PES-00070. Galdera, Frankismoaren Anatomia kongresuari 2024an emandako babesletzari buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Frankismoaren Anatomia kongresuari 2024an emandako babesletzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuak Frankismoaren Anatomia kongresua babestu zuen 2024an, 4.000 euroekin. Zertan zeutzan babesletza hori?

Zein izan zen babestutako ekintzaren kostu osoa?

Zer onura ekarri die nafarrei babesletza horrek?

Iruñean, 2025eko otsailaren 13an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-25/PES-00071. Galdera, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak 2025eko urtarrilaren 15ean emandako epaiaren ondorioei buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak 2025eko urtarrilaren 15ean emandako epaiaren ondorioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamariquek honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun diezaien:

2025eko urtarrilaren 15ean, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak baiespen-epaia eman zuen 178/24 epaiaren aurka jarritako apelazio-errekurtsoan. Iruñeko Administrazioarekiko Auzien 1. Epaitegiak 2024ko irailaren 13an emandako 178/24 epai haren bidez, ezetsi egin zen Nafarroako Gobernuak 2023ko ekainaren 28an hartutako erabakiaren aurka jarritako errekurtsoa. Erabaki haren bidez, ezetsi egin zen Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren zuzendari nagusiaren martxoaren 20ko 57/2023 Ebazpenaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsoa. Ebazpen harekin, amaiera eman zitzaion Nafarroako toki-entitateetako idazkarien lanpostu hutsak funtzionario gaituen artean merezimendu-lehiaketa eginez betetzeko prozedurari.

Epai horren ondorioz, baliogabetu egin zen Nafarroako Gobernuaren 2023ko urtarrilaren 18ko erabakia, zeinaren bidez ezetsi egin baitzen Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren zuzendari nagusiak irailaren 15ean emandako 515/2023

Ebazpenaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsoa.

Halaber, errekurtsogileari aitortu zitzaion esku-bidea duela Burlatako Udaleko lanpostua esleidakion arestian aipatutako prozeduran –hau da, irailaren 15eko 515/2023 Ebazpenaren bidez lanpostu hutsak funtzionario gaituen artean merezimendu-lehiaketa eginez betetzeko prozeduran–. Hori dela-eta, galdera hauei idatzizko erantzuna ematea eskatzen dugu:

1. Nafarroako Gobernuak aurkeztuko al du kasazio-errekurtsorik Administrazioarekiko Auzien Salak emandako epaiaren aurka, zeinaren bidez baliogabetu baitzen Nafarroako Gobernuaren 2023ko urtarrilaren 18ko erabakia, zeinaren bidez ezetsi egin baitzen Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren zuzendari nagusiak irailaren 15ean emandako 515/2023 Ebazpenaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsoa? Erantzuna baiezkoa baldin bada, zergatik aurkeztuko du errekurtsoa?

2. Kasazio-errekurtsorik aurkezten ez delako epaia irmo bilakatzen baldin bada, zer ondorio izanen du epai horrek?

3. Ondorioetako bat izan liteke aldatu egin beharko litzatekeela Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren zuzendari nagusiak martxoaren 20an emandako 57/2023 Ebazpena, zeinaren bidez amaiera eman zitzaion Nafarroako toki-entitateetako idazkarien lanpostu hutsak funtzionario gaituen artean merezimendu-lehiaketa eginez betetzeko prozedurari?

4. Administrazioarekiko auzien prozedurako errekurtsogileak Burlatako lanpostu hutsa esleizekion eskatu zuenetik aldatu beharko al litzateke –horretarako merezimenduak izan bazituelako– lekualdaketen administrazio-prozedura?

5. Epaia irmo bilakatzen baldin bada, Gobernuak 2025eko urtarrilaren 8ko erabakiaren edukia mantenduko al du maiatzaren 30eko 16/2022 Foru Legea aldatze aldera Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkeztutako foru-lege proposamenari dagokionez?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 30ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-25/PES-00072. Galdera, Kasedako Udalari legezketasuna berrezartzeko ireki zitzaion espedienteari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Kasedako Udalari legezketasuna berrezartzeko ireki zitzaion espedienteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamariquek honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun diezaien:

Honako galdera idatzi hauek egin nahi ditut Kasedako Udalak Kasedako El Planaz alderdian, 9. poligokoko 1. lurzatian, egindako jarduketak direla-eta Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiak izapidetutako hirigintzako legezketasuna berrezartzeko espedienteari dagokionez:

1. Lurralde Kohesiorako Departamentuak ziurtasunez al daki Ondare Historikoaren Zerbitzuko Erregistro, Ondasun Higigarri eta Arkeologia Atalak baimenik eman ote duen ukitutako lurzatian esku-hartze arkeologiko bat egin dadin, dagokion aztarnategi arkeologikoaren egungo egoera ezagutzeko eta lurpean gorde daitezkeen balizko hondakinak zehazteko?

2. Zertan da Kasedako Udalari ireki zitzaion hirigintzako legezketasuna berrezartzeko espedientea?

3. Hertsapen isunen ezarpena berriz aktibatu al da ala geldirik dago 2023ko urtarrilaren 16an eta maiatzaren 30ean ezarritakoak eta gero?

Iruñean, 2025eko otsailaren 13an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-25/PES-00073. Galdera, Ricardo García Pellejero eta Aniano Jiménez Santosen omenezko monolitoari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Ricardo García Pellejero eta Aniano Jiménez Santosen omenezko monolitoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamariquek honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun diezaien:

Nafarroako Parlamentuko Herritarrekiko Harremanetako Batzordeak, 2023ko otsailaren 28an egindako bilkuran, Nafarroako Gobernua premiaturatu zuen Iratxeko monasterioaren ondoan paratutako monolitoa seinalezta zezan, Jurrain 1976ko maiatzaren 9ko gertakarietan eraildako bi pertsonen

omenez jarritakoa –Aniano Jiménez Santos eta Ricardo García Pellejero–.

Gobernuak aintzat hartu zuen eskari hori; izan ere, uztailaren 24an jakinarazi zen Memoriaren Toki izendatu zela Ricardo García Pellejero eta Aniano Jiménez Santosen omenezko monolitoa – Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikoak egin beharreko txostenak ere hori bera eskatzen zuen–, zeinak Jurrain hil baitziren 1976an ultraeskuineko talde terroristei lotutako zenbait pertsonak karlismoaren urteroko ekitaldiaren aurka egindako erasoan. Horrenbestez, honako galdera hauek egiten ditut, idatziz erantzun dakien:

1. Nori dagokio gauzatzea Gobernuaren erabakia, zeinaren bidez Memoriaren Toki izendatzen baitzen Jurrain 1976an ultraeskuineko talde terroristei lotutako zenbait pertsonak karlismoaren urteroko ekitaldiaren aurka egindako erasoan hil ziren Ricardo García Pellejero eta Aniano Jiménez Santosen omenezko monolitoa?

2. Nafarroako Gobernuak noiz aurreikusten du inauguratzea Memoriaren Toki gisa monolito hori?

3. Alderdi Karlistarekin harremanetan jarri al da zehazte aldera zer material grafiko edo testu jarriko diren Memoriaren Toki horretan?

Iruñean, 2025eko otsailaren 13an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-25/PES-00074. Galdera, Europako NG funtsekin finantzaturako ID005 jarduketa 2024ko azaroan eta abenduan murriztu izanari buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Europako NG funtsekin finantzaturako ID005 jarduketa 2024ko azaroan eta abenduan murriztu izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, Europako NG SEM funtsei buruzko honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuak ID0005 jarduketaren finantzaketa murriztu du, 6.210.000 €-an murriztu ere, 2024ko azarotik abendura bitarte, 47.196.000 €-koa izatetik 40.986.000 €-koa izatera igaro baita.

Ida Kudeatze-jarduketa	Informazio Sistemako Azpiproiektua (CoFFEE)	Izena	ESLEITUTAKO FINANTZAKETA MRR 2020-2026	2020tik 2026ra bitarteko baimenak	2020tik 2026ra bitarteko xedapenak edo konpromisoak	2020tik 2024ra bitarteko betebeharrak
ID005	C02.I01.P02.S11	Bizitegi-inguruneetako suspertze ekonomiko eta sozialerako zaharberritze-programa (zaharberritze babestua).	47.196.000	39.203.722	38.429.995	7.053.751

2024ko abendua: 40.986.000 €

ID005	C02.I01.P02.S11	Bizitegi-inguruneetako suspertze ekonomiko eta sozialerako zaharberritze-programa (zaharberritze babestua).	40.986.000	39.380.487	38.626.341	7.250.097
-------	-----------------	---	------------	------------	------------	-----------

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak otsailaren 11n egin zuen agerraldian, murrizketa horri buruz galdetu zitzaionean, hau esan zuen: "deialdi hori, hasieratik beretik, kenkari fiskal modura moldatu zen –Etxebizitza Departamentuak jaso beharreko gisa kuantifikatu zituen–".

1. Etxebizitza Departamentuak zergatik egin zuen planteamendu oker hori, kenkari fiskalak zaharberritze-programan sartuta?

2. Jarduketa horretan murriztu diren Europako funtsen 6.210.000 € horiek, galdu egin al ditu Nafarroak? Beste autonomia-erkidego batzuetara joan al dira?

3. Zaharberritze-programako jarduketa horren onuradun nafarrendako kenkari fiskalek zer dirukopuru egiten dute guztira? Nafarroako Gobernuaren funts propioekin finantzatu al dira?

Iruñean, 2025eko otsailaren 13an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

11-25/PES-00075. Galdera, Karlismoaren Museoan Jurramendiko 1976ko gertaerei emandako tratamenduari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Karlismoaren Museoan Jurramendiko 1976ko gertaerei emandako tratamenduari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamariquek honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu daitezten eta idatziz erantzun dakien:

Lizarrako Karlismoaren Museoan erakusketa iraunkorrean, "Karlismoa Francoren erregimenean eta Trantsizioan" izeneko sail kronologikoan, Jurramendin 1976an izandako gertakariei buruzko aipamena egiten da. Gertakari haietan, Ricardo García Pellejero eta Aniano Jiménez Santos hil ziren ultraeskuineko talde terroristei lotutako zenbait pertsonak karlismoaren urteroko ekitaldiaren aurka egindako erasoaren ondorioz.

Baina erakusketa iraunkor horretan ematen den ikuskeraren arabera, ikuspegi tradizionalistaren eta ikuspegi berriaren arteko talkek eragin zituzten "Jurramendiko 1976ko liskarrak".

2022aren amaiera aldean eta 2023an, zenbait agiri ofizial eta pribatu atera ziren argitara; horien arabera, "Jurramendi 76" ez zen izan Estatuak Alderdi Karlistaren aurka taxututako plan bat –ofizialki hori adierazi izan da hamarkada askotan–, baizik eta Estatuko goi-mailetan azpilanean asmatutako plan bat, Alderdi Karlistak urteroko ekitaldi horri emandako joera aurrerakoi eta demokratikoarekin amaitzeko asmatutakoa.

Dokumentazioak, azken finean, argi uzten du hasieratik uste zena eta Alderdi Karlistak beti salatu izan duena: Gobernua zuzenean inplikaturik egon zen; bereziki, Fragaren esku zegoen Gobernazio Ministerioa, baina baita Kanpo Arazoetakoa ere, eta Armadarena –kuartelak operatiborako prest jartzeagatik ez ezik, une horretan Guardia Zibila oraindik Indar Armatuen parte zelako ere–, Informazio eta Turismoarena eta, azkenik, Mugimenduaren ministro-idazkari Adolfo Suárezena –izan ere, haren menpe zeuden probintzia-buruak (kargu horrek berekin zekarren gobernadore zibilara)–, zeinak Manuel Fragaren ordeztu behar izan baitzuen segurtasun indarren burutzan, Gasteizko zein Jurramendiko gertaeretan ere, Gobernazioko ministroa Espainiatik kanpo zegoelako.

Horrenbestez, honako galdera hauek egiten ditut, idatziz erantzun dakien:

1. Museoaren erakusketa iraunkorrak zergatik eusten dio Jurramendiko 1976ko gertakari buruz frankismoak zerabilen bertsioari?

2. Zergatik jarraitzen da iradokitzen Jurramendin 1976ko maiatzaren 9an izandako gertakari larriak "senideen arteko liskarra" izan zirela, karlistaren korrante ezberdinen artekoa –ofizialki hori adierazi izan da hamarkada askotan–, eta ez Espainiako Estatu goi-mailetan azpilanean asmatutako plan bat, orduan ministro zen Manuel Fraga Iribarneren protagonismo bereziarekin, Alderdi Karlistak urteroko ekitaldi horri emandako joera aurrerakoi eta demokratikoarekin amaitzeko asmatutakoa?

3. Zergatik ez da garbi esaten gertakari haiek Arias Navarroren gobernu frankistak Alderdi Karlistaren aurka antolatutako operazio baten parte izan zirela?

4. Zergatik ezkututzen da gertakari haietan Estatuak erantzukizun politikoa izan zuela erailketei dagokienez?

5. Zergatik ez dira jasotzen 2022aren amaiera aldean eta 2023an ezagutzera emandako dokumentu guztiak, zeinen arabera Jurramendi 76 Estatuak Alderdi Karlistaren aurka baliatutako plana izan baitzen?

Iruñean, 2025eko otsailaren 13an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-25/PES-00076. Galdera, Ostalaritza eta Turismoa Elkarteari turismoa susta dezan 2020tik aitzina emandako laguntza ekonomikoari buruzkoa

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, Ostalaritza eta Turismoa Elkarteari turismoa susta dezan 2020tik aitzina emandako laguntza ekonomikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendiak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako

roako Gobernuak, Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

2025eko urtarrilaren 8an, Nafarroako Ostalaritza eta Turismo Elkarteari ordezkariek agerraldia egin zuten Nafarroako Parlamentuko Kultura, Kirol eta Turismo Batzordean. Bilkuran, besteak beste, turismoa sustatze aldera elkarrekin azken urteotan egin dituen proiektuei buruz informatu zuten: MICE turismoa, mediku-turismoa edo Zero Kilometroa, adibidez.

Hori dela-eta, honako galdera hauek egiten ditut, idatziz erantzun dakien:

Zer laguntza ekonomiko eman zaizkio –laguntzaren modalitatea zein ere den– Nafarroako Ostalaritza eta Turismo Elkarteari, 2020an hasi zirenetik gaur arte, turismoaren sustapenarekin lotutako proiektuak direla-eta?

Departamentuaren ustez, zenbateraino lortu dira turismoa sustatzeko proiektu horietako bakoitzean ezarritako helburuak? Departamentuak zer balorazio egiten du horri buruz?

Iruñean, 2025eko otsailaren 13an

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

11-25/PES-00077. Galdera, larritasuneko diagnostiko klinikoak ez berandutzeko mekanismoei buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, larritasuneko diagnostiko klinikoak ez berandutzeko mekanismoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zentroek zer tresna jarri dituzte abian zertarako eta, maiatzaren 24ko 556/2023 Ebazpenean ezarritzen den legez, prozesu baten ebazpena edo diagnostiko kliniko larria ekartzen ahal duten proba osagarriak egin osteko emaitzen kontsultek ez dezaten izan une horretan egoten ahal diren gainerako hurrengo kontsultek dituzten atzerapenak?

Iruñean, 2025eko otsailaren 13an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 17an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ramón Alzórriz Goñi jaunak Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea luzatzea eskatu du.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikuluekin bat, honako hau erabakitzen da:

1. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea **2025eko ekainaren 19ko 12:00etara arte luzatzea.**

2. Erabaki hau talde parlamentarioen eta foru parlamentarien elkarteko eledunei jakinaraztea, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/ELC-00002. Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronaturako kide bat hautatzea

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 17an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ramón Alzórriz Goñi jaunak Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronaturako kide bat hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea luzatzea eskatu du.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikuluekin bat, honako hau erabakitzen da:

1. Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronaturako kide bat hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea **2025eko ekainaren 19ko 12:00etara arte luzatzea.**

2. Erabaki hau talde parlamentarioen eta foru parlamentarien elkarteko eledunei jakinaraztea, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias